



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-09-13

VIURTEA 1.507.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IRENE SAN SEBASTIAN TXIRRINDULARIA

«Munduko Txapelketan neure burua aurrean ikustean ezin nuen sinetsi»

TOLOSA Jubenil mailako Munduko Txapelketan, Europakoan eta Espainiakoan emaitza oso onak lortu ditu

ESPERIENTZIA Uztaila «gogorra eta neketsua» izan duen arren, «oso gustura» dagoela eta «polita» izan dela dio 3



L.TERRADILLOS

Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko epea zabalik, hilaren 19ra arte

TOLOSA Autoikaskuntza eta eskola presentzialak eskainiko dituzte; hilaren 22an hasiko dira eskolak 2

Eneko Lasa Munduko Arrantza Txapelketan lehiatuko da

ALEGIA Jokatu berri den Espainiako Txapelketan maila ona erakutsi ostean lortu du sailkatzea 5

JOXE JABIER SESTORAIN
EHNE-REN KIDEA

«Batzuk langile edo baserritarren kontura beti ari dira dirua irabazten»

LEITZA Nafarroako Gobernuak aurrekontuak murrizteko erabakiaren inguruan mintzatu da 7



A.IMAZ

txokoa **h**

diskofestarako
2 sarrera pare zozketan



irabazleak:

- Maialen Zapirain (Altzo)
- Izaskun Zarategi (Villabona)

Larunbata • irailak 13
22:30etatik 05:00 arte • Tolosako Beotibarren



Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko epea zabalik hilaren 19ra arte

Euskara » Hilaren 22an ekingo diote ikasturteari; eskola presentzialak eta autoikaskuntza eskainiko diete ikasleei.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko ikastetxe guztiak bezalaxe Aitzol Udal Euskaltegiak ere hilaren 22an abiaraziko du ikasturte berria. Izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute eta hilaren 19ra arte izango da horretarako aukera. Hiru bide zabaldu dituzte horretarako, egoitzan bertan (Rondilla kalea 34-B 3.a) 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; 943 651006 eta 943 652343 telefono zenbakietan edota aitzolue@tolosakoudala.net helbidean. Sarrera probak, berriz, hilaren 18an eta 19an egingo dituzte.

Ikasturtearen nondik norakoak azaltzeko eginiko agerraldian euskara «ikasi, sakondu edo hobetu nahi duen jende guztiari» euskaltegian izena emateko deialdia egin zuten Tolosako Udaleko euskara teknikari Iñaki Azaldegik eta Euskaltegi zuzendari Martxeli Sagastumek. «Gero eta eleantzen auzo den mundu hontan euskaraz entzun, idatzi, hitz egin, irakurri, ... batez ere hitz egitea beharrezkoa da», azaldu zuen Azaldegik. «Euskara bezalako hizkuntz txikiak herriarren erabilera beharrezkoa dute», gaineratu zuen.

Tolosako Hizkuntz Eskola ere izan zuen hizpide euskara teknikariak: «Salto kualitatibo bat egon da Tolosan Hizkuntz Eskolarekin. Beste hizkuntzak ezagutzeko ondo

Euskara ikasi, sakondu edo hobetu nahi duten ikasleen bila dabilza aurtengo kanpainan

dago, baina zokoragarriak diren hizkuntzak maldan behera joaten dira; horregatik euskara beharrezko izatea lortu behar da; Tolosan horretarako aukerak daudela iruditzen zaigu».

'Sheriffa', euskara ikasleen bila ariko da Tolosan eta Ibarra

2008/09 ikasturtearen hasiera zabalteko publizitate kanpainarekin jarri dute martxan. Aurtengoan Mendebaldean garai batean gaizkileak bilatzen zituen bezala (karreletan Wanted ezaguna jartzen zuten) Sheriff bat ariko da Tolosan inguruan euskara ikasi, hobetu edo sakondu nahi duten lagunen bila. Helburua euskaltegian izena eman dezaten izango du eta Gipuzkoako hizkuntza zeharkatu ondoren, hilaren 23an bisitatuko ditu Tolosa eta Ibarra.



Eske-eskuin: Iñaki Azaldegik Udaleko euskara teknikaria eta Martxeli Sagastume Aitzol Euskaltegi zuzendaria. N.L.

Aldaketak baliokidetzan

ERREDAKZIOA

Pasa den apirilaren 8an Eusko Jaurlaritzak dekretu bat kaleratu zuen. Bertan finkatu zituen euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak eta, bide batez, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura ere egokitu zituen.

Aipatu dekretu honetan finkaturik geratzen da, halaber, urrirako araututa geratuko direla Hezkuntza sailak kudeatzen dituen irakaspostuen 1. eta 2. Hizkuntz Ereduak, irakasle ez diren Hezkuntzako Langileen Euskara Agiriak eta Hizkuntza Eskola Ofizialakotako ziurtagiriak.

Dekretuaren ondoren, Euska-

Esku-orriak ere banatzen ari dira etxex etxe, postontzietan, eskaintzaren informazio guztia azalduz. Iaz ikasle izan zirenei ere mugikorre mezu bat bidali zaie matrikulatzeko garaia dela gogoratzeko. Azkenik, eguneroko eskolatar joaten diren ikasleei karpeta bat eta boligrafo bat banatuko dizkiete ikasturtearen hasieran.

Tutoretzak irakaslearekin hamabostean behin

Martxeli Sagastumek azaldu bezala «Euskaltegiak bi eskaintza nagusi ditu; batetik, eskola presentzialak eta, bestetik, autoikaskuntza, biak ere dagoeneko ezagunak direla uste dugu».

rian Gaitasun agiria (EGA) eta HABERen 3. mailako azterketa erabat baliokideak izango dira; baina, aurrerantzean, erakunde bakoitzak berari dagokiona ziurtagituko du.

Martxeli Sagastumek argitu duenez, «azkeneko hiru ikasturteetan 1. eta 2. mailako egiaztatze mailakotako azterketak euskaltegian bertan egin ditugu eta agiriak HABEK berak luzatu dizkie ikasleei». Iaz EGAREN ordez 3. mailako azterketa aritu ziren prestatzen. «Deialdi itxira aurkeztu eta gainditu duten ikasleek titulu hori lortu dute, erabat baliokidea dena».

Iñaki Azaldegik, bestalde, «titulu hutsarekin ezer ez da lortzen»,

Eskola presentziala aukeratzen duten ikasleek, taldean ariko dira lanean astelehenera ostegunera, astean zortzi orduz. Honekin batera, ordu erdiko tutoretzak izango dituzte banaka-banaka irakaslearekin hamabostean behin, eguneroko eskola hasi aurretik edo bukatu ondoren. «Iaz egin genuen estreñakoz eta planteamendua oso ondo joan da, ikasleek zein irakasleak gustura gelsiditu ziren eta formula errepikatzea pentsatu dugu».

Autoikaskuntza aukeratzen dutenek, berriz, euren tutorea izango dute eta bien artean erabakiko dute lan banaketa; hamabostean behin euskaltegi joan beharko dute ordu beteko mintza saioa egi-

zehatu nahi izan zuen; «euskara titulua bitartekoa baino ez da, helburua erabilera da, dudarik gabe».

1. eta 2. mailako egiaztatze, bi deialdi egingo dituzte

Dekretu honen ondorioz, 1. eta 2. mailako egiaztatze bi deialdi izango dira aurrerantzean, hain zuzen ere, maitezkoa eta urrikoa. Lehen EGAKO ikasleek bi deialdi izantzen zituzten baina ez gainontzeko mailakotako. Hortaz, denek aukera bat gehiago izango dute. Sagastumek azaldu bezala, Aitzolen «une honetan bitalde ditugulanean, urriko azterketak horiek prestatzeko, 2. mailakoa bata eta 3. mailakoa bestea».

«Gainerakoa berak egin behar du; konstantea izan behar da horretarako», azaldu du Sagastumek. Hala, BOGAKO arketak egin behar ditu ikasleek internet bidez; halaber irakasleak emango dioten materialarekin egin beharko du lan.

Material berria egokitzeko ahalegin berezia

Aitzol Udal Euskaltegiak azken urteetan «sekulako ahalegina egin ari da material berria, egokia eta txukuna sortzen». Horretarako irakasle baten liberazio osoa izan zuten aurretik eta gerora ere liberazio erdira izan dute irakasle bat.

Halaber, «iaz aditu baten lagun-

» HAINBAT DATU

■ **Matrikula non egin.** Aitzol Udal Euskaltegiaren egoitzan bertan (Rondilla 34-B, 3.a 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara); telefonoz (943 651006 edo 943 652343; edota aitzolue@tolosakoudala.net helbide elektrinokoa).

■ **Sarrera probak.** Hilaren 18an eta 19an.

■ **Ikasturtearen hasiera.** Hilaren 22an.

■ **Eskaintzak.** Eskola presentzialak edo autoikaskuntza.

tza» izan zuten, Sagastumek argitu bezala. Honek unitateen diseinua asmatzen edo sortzen lagundu die. «Udalak ere aparteko ahalegina egin arlo honetan».

Haatik, aurrean «iturria itxi egingo dela dirudi» eta, beraz, osatu gabe dutena «ahal bezala bukatu beharko dugu». Ahalegin honi guztiari etekina atera behar zaiola deritzote euskaltegitik, «euskaltegiaren mugak gainditu eta zabaldu egin behar da».

Hau guztia aintzat hartuz, ikasturte honetarako helburu nagusietariko bat «gaia ondo aztertu, bidegarritasuna bilatu eta martxan» jartzea izango dela baieztatu du euskaltegi zuzendaria, «argitaratzeko modurik egokiena zen den erabaki ondoren».

Diru laguntzak eta finantziak

Aitzol Udal Euskaltegian izena ematen duten ikasleek diru laguntzak eta finantziak mota desberdinak aukera ditzakete. Tolosako Udalak, esaterako, matrikularen zati bat itzultzen die ordenantzen ageri diren baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiak. Hain zuzen ere, matrikulak balio duenaren %50a itzultzen die ohiko taldeetako eta autoikaskuntzako, berriz, %75a (izan ere, azken hauentzat matrikula garestiagoa izaten da).

Inguruko herriko biztanle gehienek ere bere udalak itzultzen die matrikularen zati bat, eta beste zenbaitek oso-oso itzultzen dute matrikularen zenbatekoa.

Halaber, HABEK ere diru laguntzak ematen dizkiete euskara maila egiaztatzeko azterketa dagokien garaietan gainditzen duten ikasleei. Laguntza horrek %100a jasotzea suposatzen dio ikasleari (aurrez beste laguntzarik jaso badute, geratzen dena ordainduko du HABEK).

Diru laguntzekin batera, urtean zehar matrikularen zenbatekoa eramangarriago egiteko bideak ere baditu ikasleak. Hala, matrikularen zenbateko osoa batera ordain daiteke edota hiru epetan banatuta. Hala ere, zailtasunak dituen ikasleak kutxek edo bankuek ere eskaintzen diote finantziak egokiagoa.

Euskara ikastea, hobetzea edo sakontzea oso merke atera daiteke hortaz. Aitzakiarik, beraz, ez da izango.

E Elkarrizketa

IRENE SAN SEBASTIAN ▶ Txirrindularia

Txirrindularitza

Espainiakoan txapeldun eta Mundukoan bosgarren postua lortu berri ditu; Europakoan ere maila oso ona erakutsi zuen tolosarrak.

INIGO TERRADILLOS

Etorkizun oparoa du txirrindularitzan Irene San Sebastianek (Tolosa, 1990). Oriako Txirrindulari eskolan hasi zen, eta egun Debabarrenan ari da, maila oso ona erakutsiz. Uztailean, hiru txapelketatan hartu zuen parte: Europakoan lehendabizi, Mundukoan ondoren, eta Espainiakoan azkenik. Emaitza oso onak lortu zituen, eta «oso gustura» dago lortutakoarekin eta bertan bizitako esperientziarekin.

Uztaila oso bete izan duzu, hiru txapelketekin, eta hiruretan ere, emaitza onak, gainera.

Italian hartu nuen parte uztailean lehen astean. Bertan, erlojupekoan 30. postuan amaitu nuen eta errenkadan 28. egin nuen. Hegoafrikan izan zen Munduko Txapelketa uztailean 18tik 20ra bitarte, eta erlojupekoan 28. postuan amaitu nuen eta errenkadan bosgarren. Azken asteburuan Santiago (Galizia) hartu nuen parte Espainiako Txapelketan, eta hor biak, erlojupekoa eta errenkada proba ere irabazi nituen. Beraz, oso gustura nago lortutakoarekin.

Txirrindulari onenen artean lehiatu zara, eta ez edonola. Pozik egoteko modukoa da.

Bai, ezin naiz kexatu. Denboraldia borobiltzea lortu dut, eta hori estimatzen da. Gogorra izan zen, neketsua, hainbeste probatan parte hartzea, baina ez dut inoiz horrelako aukerarik izan, eta aprobetxatu egin behar nuen. Neketsua izan arren oso gustura geratu naiz. Ez emaitzengatik soilik, esperientzia aldetik ere oso polita izan baita. Askok ikasten da, aberasgarria da oso, eta jendea ezagutzen duzu.

Europako nahiz Mundu mailako lasterketetan parte hartzeri deitze hutsa handia izango da, ezta?

Ilusio handia egin zidan. Ez nuen espero. Denboraldi ona egin dut,

«Mundukoan ezin nuen sinetsi ere egin lehen postuetan nengoela»



I. TERRADILLOS

eta etapak irabazi ditut, baina, esaterako Espainiako Kopan ez dut parte hartu, beraz, han ez naute ia ezagutzen. Hemen bai, baina han hainbeste ez, horregatik ilusio berezia egin zidan, horrek erakusten baitu zugan konfiantza dutela, emaitza ona lortuko duzula uste dutela.

Mundu mailako lasterketa batean onenen artean egotea ere sarria izango da.

Maila izugarria zegoen, eta ikusten nuen ezinezkoa zela emaitza onak lortzea, eta Mundukoan espreinean neure burua aurrean ikusi nuenean ezin nuen sinetsi ere egin. Saiatuz, azkenean bosgarren postua lortu nuen.

Esperientzia hori eta gero, orain zein unetan zaude?

Oraindik ez da denboraldia amaitu, irailaren amaieran edo amaituko da. Ondoren, aurrendoraldia egin eta ikusi beharko dut ikasketekin nola moldatzen naizen denboraldi berriari ekiteko.

Nesken arteko txapelketak urriagoak izaten dira.

Espainiako Kopa eta Euskadikoa daude, eta hortik aurrera oso gutxi daude neskek parte hartzeko. Beraz, mutilekin batera aritzen naiz lasterketa askotan. Hau oso ondo etortzen da erritmoa hartzeko, entrenamendu moduan-edo. Europara lehiatzea joateko, esaterako, oso ondo dago hemen mutilekin lehiatzea. Prestatuta joaten zara horrela. Bestalde, lasterketa gutxi egoteaz gain, hemen bost neska baino ez gara aritzen jubenetan, eta hain gutxi erekin zaila da lasterketa on bat antolatzea.

Zergatik hain gutxi?

Ez da inor animatzen, eta pena da. Nik animatuko nuke jendea txirrindularitzan hastera. Nahiago izaten dute askok beste kirol batean aritu, batik bat ez delako taldean egiten, eta nesken txirrindularitza ez da gehiegi babesten, beste hainbat kirolatan gertatzen den bezala.

Zure kasuan, nolatan hasi zinen?

Gustatzen zitzaidan kirola, eta animatu egin ninduten eta sartu egin nintzen.

Eta hor jarraitzen duzu.

Orain unibertsitatean hasiko naiz, eta ez dut txirrindularitza uztean pentsatzen, baina agian denbora gutxiago izango dut.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Santa Maria Kapera ariko da bihar Izaskungo ermitako elizkizunean

Ibarra » 11:00etan izango da Izaskungo Birjinaren omenezko elizkizuna; Kaperak hainbat obra eskainiko ditu.

ERREDAKZIOA

Izaskungo amabirjinaren ospakizun astea denez, ohiko moduan, Tolosako parrokia guztiak ekitaldi erlijiosoak egingo dute bihar izen bera daraman ermitan, hau da, Izaskungo ermitan.

Hala, 11:00etan izango da eukaristia, eta bertan, urtero egin ohi den moduan, Santa Maria Kapera-ko abesbatzak hartuko du parte. Ondorengoak izango dira eskainiko dituzten obrak: *Izaskungo Birjinaren ereserkia* (Eduardo Mocoroaren musika eta Eugenio Urrozaren hitzak), *Erruki Jauna* (Ander Letamendia), *Ave Verum* (Mozart), *Gurtu Dezagun Jesus* (Valeriano Mocoroaren hitzak eta Eduardo Mocoroaren musika).



Santa Maria Kapera Izaskungo ermitan. HITZA

Azken hau, Korpus egunez txistulariek jotzen zuten abesti herrikoiean oinarritua dago; Eduardo Mocoroak moldatu egin zuen Bandan interpretatua izateko, eta erlijio ospakizunetan abestua izateko helburuz. Egitarauak *Izaskun*

Birjinari zortzikoarekin (Gregorio Danborenea) jarraitzen du.

Musika Kapera Ander Letamendia zuzendutako du. 70 abeslariz osatua dago, eta 20 kidek osatzen dute hari-orkestra. Organoa, berriz, Pepe Arzeluzek jotzen du.

Euskal Kantu Txapelketan izena emateko aukera

Kultura » Hilaren 30era arte egin ahalko da; 16 urtez gorakoei zuzendua dago txapelketa; aurten Gipuzkoan izango da.

ERREDAKZIOA

Euskal Kantu Txapelketan izena emateko epea irekita dago jada, eta hilaren 30 arte egongo da zabalik. Aurten Gipuzkoan ospatuko da Kantu Txapelketaren 12. edizioa.

Iparretetik datorren tradizio hau aspaldikoa da, eta Gipuzkoan aurten izango denak urteroko lanari erantzuten dio, hirugarren urtea baita atsedetik gabe ospatzen dena. Helduei zuzendutako Txapelketa izango da, 16 urtez gorakoei zuzendua.

Euskal Kantu Txapelketaren bidez «kantatzeko ohitura bultzatzeaz gain, euskararen erabilpena berritzea, ditugun kantari trebeak topatzea eta hauei publikoki agertzeko aukera ematea» lortu nahi dela, besteak beste diote arduradunek. «Hala ere, Euskal Kantu Txapelketan nabarmentzen diren kantari hasi berriek, urtean zehar ere beren burua ezagutzera emateko aukera izan dezaten ari gara lanean, kantaldiak, topaketak eta abar antolatuz, kantagintzari emandako bultzada Euskal Kantu Txapelketak amaitzearekin eten ez dadin».

Hiru sail ezberdin

Euskal Kantu Txapelketa hiru sailetan dago banatua eta kantari eta kantuzaleek batean edota bestean har dezakete parte: banakako sailean, binakako sailean ala taldekoan. Gainera, «a capella» abestea, kantuzaleen berreskuratzea eta kantuzaleen berrien sorkuntza ere sustatu nahi ditugu gure ekimenarekin. Lehenengo aurkitu eta transmititu, eta berriak aiereratu kantua bizirik mantentzeko».

Hiru kanporaketa eta final batekin gauzatuko da aurtengo Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketa. Lehenengo kanporaketa Zumaia-ko Aita Mari Aretoa izango da urriaren 11n. Bigarrena, Villabona-ko Gurea Zinema Antzokian izango da urriaren 18an, eta hirugarrena, Azkoitiko Baztartzo Antzokian, urriaren 25ean. Bertan jakingo da, hiru saio hauetatik, zeintzuk pasatuko diren finalera. Finala, berriz, Donostiako Kursaal-ean, izango da azaroaren 1ean.

Txapelketaren arduradunek kantari berri eta kantuzale orok euskaraz abestera animatu nahi dute. Izena emateko edota informazio gehiagorako 943 59 33 02 edota 645 72 77 65 (Ainhoa) telefono zenbakiak edo posta@kantuzale.net edo eae@kantuzale.net helbideak erabil daitezke.

Euskaldekoko ordezkari ugariak parte hartu ohi dute urtero Euskal Kantu Txapelketan.

Laburrak

Ikasturte berria hastear, Helduen Hezkuntzan

TOLOSA » Tolosako Helduen Hezkuntza Eskolatik (HHE-EPA, Igaralde kalea, 23) azaldu dutenez, datorren asteazkenean, hau da, hilaren 17an hasiko da bertan ikasturte berria. Helduen Hezkuntzari buruz informazio gehiago nahi duenak 943 67 26 60 zenbakira deitu edo www.geocities.com/epatolosa orrian begiratu dezake.

Gazte bat atxilotua, Benito Mujika hil zuelakoan

VILLABONA » Abuztuaren 16an hilotz aurkitu zuten 60 urteko Benito Mujika bere etxean. Gorpuak berderatzi labankada zituen; ikerketan zehar, odol arrastoak zituen aiztoa aurkitu zuen Ertzaintzak, eta aurkitutako hatzmarkak eta DNA arrastoak erabakigarriak izan dira 25 urteko mutil gaztea atxilotzeko.

HITZA lanpostua

irutxuloko HITZak

KAZETARIA BEHAR DU

Eskatzen da:

- Euskarazko kazetaritzan eskarmentua izatea.
- Donostia ezagutzea baloratuko da

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 25a baino lehen: donostia@irutxulokohitza.info edo deitu 943-46 72 36 telefono zenbakira



Imanol eta Garikoitz Altuna anaiak erremontista handiak dira. HITZA

Hilaren 28an Altunatarak omenduko dituzte

Amezketak » Ergoneko pilotalekua inauguratuko dute egun horretan bertan eta bazkaria izango da; txartelak salgai daude.

ERREDAKZIOA

Hilaren 28an Amezketan, Gari-koitz eta Imanol Altuna anaiak erremontistak omenduko dituzte. Egun horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte; tartean, bazkaria. Egun berean Ergoneko frontoia inauguratuko dute.

Amezketako Udalak bazkari honetarako txartelak dagoeneko salgai jarri ditu herriko tabernetan. Esan bezala, bazkaria hilaren 28an izango da, Ergoneko pilotaleku berri-tuan. Txartelak 25 euro balio du eta haurrak ere joan daitezke, hauen prezioa 8 eurokoa izanik. Bertaratu nahi duenak hilaren 20ra arte izango du erosteko aukera (larunbata, gaur zortzi).

Helduek dastatuko duten menua honakoa da: langostinoak, itsaski paella, saihsartekoa saltsa ezberdinetan (entrekota), postrea, kafea, kopa eta purua.

Laburrak

Kultur Astea antolatzen hasteko lehen bilera

AMEZKETA • Kultur Astea antolatzen hasteko, Amezketan lehen bilera izango da datorren astearte-an (hilak 16). Bilera irekia 20:30ean balioanitzeko gelan izango da. Ahalik eta jende gehien biltzea nahi dute antolatzaileek, Kultur Aste osatuagoa ateratzeko eta denen gustukoagoa izateko asmoz.

Zaldi Raid lasterketan izena emateko 21era arte

BEDAIO • I. Bedaioiko Zaldi Raid lasterketa hilaren 28an izango da. Naturaz, zaldiaz eta Bedaioz gozatzeko lasterketa honetan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago dagoeneko eta azken eguna hilaren 21a izango da honako bideak erabiliz: 620 199 166 telefono zenbakira deituta, edo www.bedaio.com webgunea erabiliz. 10 euro ordaindu beharko da bertan parte hartzeko. Artubi kultur elkarteak antolatutakoa da eta laguntzaile askori esker eraman ahal izango da aurrera lasterketa berezi hau.

Umeen sanmigela jaietako bazkarirako txartelak

IRURA • Sanmigela Iruran bi aste-burutan izango dira. Umeen bazkaria hilaren 20an izango da eta bertara joan nahi dutenek datorren asteazkena baino lehen eman behar dute izena ikastolan edo udaletxean. Bazkari hau 14:30ean plazan izango da. Bestalde, festetan buruhandiz atera nahi duenak, udaletxean hilaren 17a baino lehen eman behar du izena. Honetarako 12 urte izan behar dira gutxienez, eta zozketa ostegunean egingo da.



Eneko Lasak Portugalen jokaturako Munduaren bigarren egun zuen. HITZA

Eneko Lasa Munduko Txapelketarako sailkatu da

Alegia » Datorren udaran lehiatuko da arrantzalea junior mailan Txekiako Mundukoan; Espainiakoan maila ona erakutsi zuen.

NEREA URBIZU

Eneko Lasa arrantzale gaztea Espainiako Txapelketan aritu da pasa den asteburuan. Bertan Euskadiko selekzioarekin eta bakarrik ere aritu da. Euskadiko selekzioak, bertan, hirugarren postua eskuratu zuen eta Eneko Lasak, berriz, 7. postua.

Ondoren, lehiaketako bigarren egunean 16 arrantzalaren arteko lehia izan zen, maila goreneko deiturikoa. Benasquen (Huesca, Espainia) burututako proba honetan, Lasak bigarren egun zuen eta emaitza honek datorren urteko Munduko Arrantza Txapelketan aritzeko txartela eman dio. 16 arrantzaletik 6 igarotzen dira Mundukora. Beraz, datorren udaran Txekian aritu beharko da munduko onenen artean Lasa alegi-arrantzalea, bigarren egun baitzuen maila gorenekoan.

Mundukoan txapeldunorde

Ez da aurten lortu duen sari bakarra. Penacovan (Portuga) aritu

zen pasa den abuztuan ere, Mundu mailakoan. Bigarren egun zuen banakakoan, munduko txapeldunorde izan zen, beraz. Juniorren mailan 40 arrantzaletatik ziren. Espainiako selekzioarekin ere aritu zen eta talde honekin 3. postua lortu zuten, brontzea, alegia.

Datorren Mundukoan Espainiako selekzioa osatuko dutenen artean euskaldun bakarra Eneko izango da. Euskadiko selekzioa osatu behar izan duten garaian, Lasa da Tolosaldeko bakarra, azpeitiar bat, arabar bat eta bizkaitarrek ere izanik.

Proba guztietan amuarraina arrantzatu behar zen, eta baloratzen dutena «amuarrainaren tamaina eta kopurua» dira. Portuga-

leko Mundukoan 21 arrain harripatu zituen 14 urteko juniorrak (bere mailan 14 eta 18 urte bitartekoek hartzen dute parte).

Alegialdetik Mundukora

9 urte daramatza arrantzan, bost urte zituela hasi zen, errekarra joateko norbaiten laguntza behar zuela. «Tolosako Arrantzaletik elkarteko Felix Rodriguezek animatu ninduen. Eta gustatu egin zitzaidan». Gaur egun, Felix Rodriguez da bere irakaslea.

Erraz arrantzatzen du Enekok, baina ez da bakarrik berezko duena, entrenatu ere, asko entrenatzen baitu. Oporretan, bospasei ordu sartu ditu egunero ibaian Lasak urte askotan zehar. Gero, ikas-



Eneko Lasa, ezkerretik hasita bosgarrena, Euskadiko selekzioarekin. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Beti alai
jatekoa**

Garaian garaiko
janariak

Arraikietan berezia



Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Lizarran jokatu du Ibarrek denboraldiko lehen partida

Ibarra » Areto -futboleko denboraldia hasiko du gaur Ibarra taldeak Area 99 taldearen kontra duen partidarekin.

R. CALVO

Areto futboleko talde ibartarra abuztuaren 5etik ari da entrenatzen, «nahiz eta oporraldia dela medio oraindik ere ez den taldea osorik batera entrenatu», Txubel entrenatzaileak esan duenez.

Trebatzaileak, era berean, gaur hasiko duten denboraldi berria «gogorra» izango dela dio, izan ere «bi talde edo, kategoriaz jaitsi dira eta beste bi edo hiru taldek diru asko dutenez fitxaketa onak egin dituzte. Bost edo sei talde ditugu, hortaz, nahiko maila onarekin», azaldu du.

Horiek horrela, gaur izango du talde ibartarrak denboraldiko lehen partida, Lizarrako Area 99ren,

garai bateko Perfiles Sintalen, kontra, hain zuzen ere.

Txubelek agertutakoaren arabera, gaur 19:30ean Lizarrerian jokatuko duten partida zaila izango da, Area 99 pasa den denboraldian zilarrezko mailan zegoen eta. Denboraldi honetan, hala ere, Lizarrako taldearen jokalariek pasa den denboraldian baino gutxiago dira, nahiz eta maila altuak diren. «Denboraldi honetan talde honek zer esana emango du, segurur», azaldu du Txubelek.

Bi baja «garrantzitsu»

Ibarrari dagokionez gaurko partidari bi baja «garrantzitsu» izango ditu taldeak: Ion Ander Karrerarena, arazo pertsonalak direla eta, eta lesionatuta dagoen Cristian Davilarena.

Denboraldi berriari dagokionez entrenatzaileak jokalarien artean ez dutela inor berririk fitxatu esan du, «ez daukagu horrenbeste dirurik eta ez dugu inor fitxatu, hori bai

Aitzol Oyarbide jubenila orain guzti ere, iaz Goierri taldean aritu zena». Era berean, Mintxo jokalaririk nafarra ere bajaran da osasun arazok direla medio.

Horiek horrela, denboraldi honetan aldaketa bitxiak eman dira, diru arazoak direla eta. Batetik, iazko denboraldiko irabazleak, Gernikak, ezin izan du zilarrezko mailara pasa ahal izateko aurrekontua osatu. Castro-Urdiales eta Area 99 (pasa den denboraldiak Perfiles Sintal bezala ezagutzen zena) taldeek diru arazoak direla medio zilarrezko maila atzean utzita, Ibarraren kontra ariko dira denboraldi honetan.

Egun garrantzitsua dute, hortaz, Ibarra taldeak denboraldi hasierarekin. Partida, esan bezala, 19:30ean izango da Lizarrerian kiroldegian. Betiko moduan Euskadiko Kutxaren bulegoaren parean geratu dira, 16:15ean, Nafarroa aldera joateko.



Alurrek pasa berri diren Ibarra festetan eskainitako ikuskizuna. HITZA

Alurr dantza taldeak urrian hasiko du ikasturte berria

Ibarra » Matrikulatze kanpaina da Alurr; hilaren 26a bitarte jasoko ditu Ibarra Kultur Etxean eskaera guztiak.

ko haurrak asteartean eta ostiralean ariko dira, eta 10-12 urte bitartekoak asteartean. 13-16 urte bitarteko gazteak ostiralean dute hitzordua.

Eider Epelderren klaseei dagokionez, ostiralean hamabost urte beharoko talde berria ariko da lokal zaharrean eta pasa den urteetan eskolak jaso dituztenen hamabost urte beharoko lehen taldea ere ostiralean ariko da lokal zaharrean. Bigarren taldekoak, aldiz, asteartean lokal berrian egongo dira. Edu Muruamendiaren klaseak lokal berrian izango dira; beteranoak ostegunetan, lehen eta bigarren gazte taldea ere egun berean eta hirugarrena asteazkenean. Helduak, berriak direnak, lokal berrian astelehenean egongo dira, Maier Lopetegiren taldea astelehenean lokal zaharrean eta Miren Barberenaren lokal zaharrean asteazkenean.

ERREDAKZIOA

Hilaren 7an eta 8an eskaini zituen Alurr dantza taldeak pasa den ikasturteko azken emanaldiak, eta jada ikasturte berriari begira dago. Kurtsoetan izena emateko epea hilaren 26an amaituko da eta Ibarra Kultur Etxera jo behar da horretarako.

Dantza taldeak egin ohi duen moduan talde zein orduetegi desberdinak antolatu ditu ikastaroak emateko. Haurren kasuan eskolak lokal zaharrean emango dituzte eta asteazkenean 4-5 urtetakoen txanda izango da, astelehenean 5-6, 6-7, 7-8 eta 8-9koena, 9-10 urte-



Ibarra ia jokalaririk berdinak izango ditu denboraldi honetan. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

- **Kamarera.** Anotan esperientzia duen kamarera bat behar dugu. Igandeetan jai. 650 043 139.
- **Irakaslea.** Lazkaoko ingeleseko akademiarako irakaslea behar dugu. Bidali Curriculum Vitae hizkuntzaeskola@gmail.com helbidera.
- **Etxeko lanak.** Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. 686 118 920.

ETXEBEBIZITZA

- **Alokairua.** Etxebizitza bat hartuko genuke alokairuan Tolosan,

Ibarran, Villabonan edo inguruetan. 635 71 24 44.

SALGAI

- **Peugeot Partner.** Peugeot Partner diesela salgai. Egoera onean. 649 510 941.
- **Haurrentzako aulkia.** Haurrentzako paseoko aulkia salgai, oso egoera onean. 70 euro. 943 1189 40.

ESKOLAK

- **Gitarra eskolak.** Gitarrako eskolak bakarka edo taldean. 630 925 997.

@ Argazki Lehiaketa. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK oporraldien ondoren antolatutako ohi duen Argazki Lehiaketa abian da. Argazki iritsi bezala webgunean jartzen ditugu edozeinek ikusi ahal ditzan. Orain arte inguruan egindako argazkiak jaso ditugu, besteak beste, Aragoi edota Nafarroan ateratakoak, eta baita AEBetako New Yorketik, Kubako Habanatik edota Perutik bidalitakoak ere. Oraindik ere badi-tuzue egunak argazkiak bidaltzeko, epea hilaren 18an (egun hau barne) amaituko baita. Irudiak tolosaldeko@hitza.info helbidera bidali ahal dituzte. Webgunean ohiako atalak ere aurkituko dituzte:

www.tolosaldeko@hitza.info

Ibarra » Datorren asteartea baino lehen eman behar da izena lehiaketan parte hartu ahal izateko.

ERREDAKZIOA

Hilaren 21eko igandean Ibarran egongo den *Ibarra, azoka eta piparra* azoka bereziaren barruan laugarrenoz Euskal Herriko Piparraren Txapalketa Gastronomikoa antolatu dute. Bertan parte hartzeko epea hilaren 16an, hurrengo asteartean, amaituko da eta aurtengoan, gainera, Euskal Herriko 250 elkarteri egin diete parte hartzeko gonbita.

Parte-hartzaileek bi plater presatutako beharko dituzte Ibarra piparrarekin: Piperrada eta 6 pintxo berdin. Plater bakoitzeko irabazleek txapela bana eta 200 euro irabaziko dituzte, bigarren gelditzen direnek 150 euro eta hirugarrenek, aldiz, 120 euro.

Antolatzaileek sukaldak, Ibarra piparra, tipulak eta piper gorri zein berdeak jarriko dituzte, eta gainerako osagai guztiak eta sukaldako tresneria norberak eraman beharko du.

Izena emateko eta informazioa jasotzeko antolatzaileek bi bide jarri dituzte: 943 67 03 99 telefono zenbakira deitzea edo ibarrikult@euskalnet.net helbide elektronikora jotzea.

E Elkarrizketa

JOXE JABIER SESTORAIN » EHNEren kidea

«Krisian edo ez, batzuk beti irabazten; langile, baserriar edo besteen kontura»

Leitza » Nafarroako Gobernuak 2009an aurrekontuak murrizteko asmoa azaldu du; lehen sektorean izango duen eraginaz mintzatu da Joxe Jabier Sestorain.

ASIER IMAZ

Nafarroako Gobernuak iragan asteazkenean onartu zituen 2009. urteko aurrekontuen nondik norako nagusienak. Zergen bidez jasotako diru kopuruak behera egin omen du, ondorioz, arlo ezberdinetara zuzendutako dirua iragan urtekoarekin alderatuz %11,3 jaisiko dutela azaldu zuen lehendakariordeak, Alvaro Mirandak. Pertsonalaren gastuei dagokiena aldiz, %7,3 igotzea aurreikusten dute; «plantilla gehitu eta konbenio edo hitzarmen kolektiboasintzeko aukera izateko».

Albisteak lehen sektorean izandako oihartzuna, baserriaren ikus-puntutik aztertu du Joxe Jabier Sestorainek (Leitza, 1967), EHNEren kidea.

Diru murrizketa honek baserrian zer nolako eragina dauka?

Bi aldetatik ikusi beharko litzateke. Inbertsioa egin daukanari ez dio hainbeste eragin, aurretik jaso duelako diru laguntza hori. Inbertsio berriak egin behar dituenari aldiz, hemendik aurrera diru laguntza horiek murriztu eginen zaizkio. Gazte bati edo baserrian aldaketa bat egin nahi duenari, inbertsio bat behar duenari, dudarik gabe eragin handia egingen dio.

Belaunaldi berriek baserrian lanean hasteko arazoak baldin bazituzten, neurri hauekin...

Biderkatu egiten dira. Hasten denak oinarri sendo bat behar du: lur puska handi bat, nahiko eskuragarri duen obra edo pabilioi bat edo horrelakoren bat. Baina zerotik hasten baldin bada, nahiz eta lurra eduki, oso zaila edukiko du aurrera segitzea. Ez da azken erabaki hau bakarrik, aspalditik heldu den politika da; toki batean ustiatuegiak zentralizatzen aritu dira eta horrela segitzen dute. Orain dela 20 urte lana egiten zutenen %20 inguru zen nekazaritzatik bizi zena. 15 urtetan %6ra jaisteja jarri zuten hel-

burutzat. Hori egin dute, eta une honetan %2-3ra jaisteja planteatzen ari dira. Hori Europatik etorri den politika bat da; nekazaritza intentsiboa eta zentralizatua, merkaturako gero produktua hori ahal den merkeena ateratzeko. Kontsumismoaren bide hori, sistema horrek beharrezkoa duena, elikatzen segitzeko.

Hau dena iraultzeko zer egin beharko litzateke?

Ziurrenik lehenbizi, Gobernuak erabakiak bere kabuz hartzen hasi beharko litzateke; gaur egun multinazionalak hartzen dituzten erabakietatik alde batera utzi eta bertako jendea begirako politika bat egiten hasi. Kalitatea eta dibertsifikazioa bultzatu hori egin ahal da. Gutxienez artean asko egin behar, gehiagoren artean asko eginaz, lana banatuz. Gero sakoneko beste akats bat ere badago: baserriarrei ez zaie dagokien prezioa ordaintzen. Azken 30 urte hauetako prezioetan gabiltza. Merkatuetan ez da hori nabaritzen baina baserrietan bai: pentsum, gasoila, makinaria, mantenimendua, ... hori ikaragarri gogo da.



A. IMAZ

Hala ere etorkizunak, diru laguntzetatik urrun beharko luke egon.

EHNEtik beti aldarrikatu izan da hori. Diru laguntzen politika kendu egin behar dela eta produktuek behar duten ordainketa horretara joan behar dela. Beste gainontzeko langileek bezala soldata duin bat eduki behar du nekazari edo abeltzainak, ezin du administratibotik etor daitezkeen diru laguntzetatik bizi. Hori lehenago edo beranduago bukatu egiten da.

Egoera hobetzeko esperantzarik ere ez da ikusten.

Zoritxarrez ez. Orokorrean gizarteak hausnarketa bat egin beharko luke, gaur egungo bizimodu honek

nora garamatzen hausnartu beharko luke. Memento honetan krisia gora eta behera dabilela, serio ki pentsatu beharko dugu bizi dugun sistema eredu hau ez dela batere egokia edozeinentzat. Denak nozitu dugulako halako batean zarpazo bat. Eta bidenabarraren beste batzuk, edo krisian edo ez krisian, beti irabazten; langile, baserriar edo beste gainontzekoen kontura. Zer pentsatua eman beharko liguke horrek, gizarteari eta jendea orokorrean. Eta ez utzi, eta azpimarratu: ez utzi, hain erraz halako baserriak egiten; zeren jendea esnatzen hasteko garaia ere bada.

S Soka motzean

«Hau utziz gero 15 egunetara hilko nintzateke, benetan diot»

JAVIER LACALLE,
Saltzailea

A. IMAZ

Leitzako merkatuan egoten da ostiralero Javier Lacalle (Aguirain, 1941) barazki eta fruituekin. Filosofiaz hartzen du lana.

Merkatu gehiagotan egoten al zarete?

Bai, internazionalak gara (farreak). Etxarrin, Azpeitian, Aguirain, Ordizian, ... lehen Tolosara ere joaten ginen, ia 50 urtetan joan gara, baina oso gutxi saltzen genuelako utzi egin dugu. Txikitlan lan honetan amaituko zenuela uste al zenuen?

Ez. 13 urterekin administrazioko kontablea nintzen baina irabazten nuena baino gehiago ordaindu behar izaten nuen ez aitarekin hasi nintzen lan honetan, eta oso gustura nago.

Erretirorik ez al dago zuretzat?

Ia orain dela bi urtetik dut aukera hori, baina ez dut nahi. Ez. 15 egunetara hilko nintzateke. Dinamismo izugarria dago hemen. 18-20 ordu ibiltzen gara honela eta horrek ematen dit bizitza. Benetan diot.

Jendea ezagutzek ere emango du bizipoza?

Bai horrela da. Bezera guztiak berdinak izan beharko lukete baina batzuekin zerbait berezia daukazu.

Supermerkatu handien alboan, etorkizunik ba al du honek?

Gutxira doa. Etxeko andreak arima jainkoari ematen dihonean seme alabek ez dute ohitura honen jarraitzen. Amak zein tomate hona jartzen zuen gogoratzen dira baina...



A. IMAZ

Aresoko I. Mendi Martxa bihar 08:00etan

Areso » Bihar bertan izena emateko aukera egongo da 07:00etatik 07:45era bitartean herriko plazan bertan.

A. IMAZ

Eskualdeko Kirol Mankomunitateak antolatuta, Aresoko Udalerrian eta Plazaola Partzuergoaren babesarekin, bihar I. Mendi Martxa egongo da Aresotik barna.

Izena emateko aukera zabalik

Aresoko plazatik 08:00etan irten go den mendi ibildian parte hartu nahi duenak, egunean bertan

izena emateko aukera izanen du 07:00etatik 07:45era plazan.

Ibilbidea 18 kilometrotakoa izanen da eta 4 edo 5 ordutan egiteko modukoa, zailtasun ertainekoa izaki. Bidean Ulizar, Pagozelai eta Lau Mugarrieta inguruak ezagutzeko aukera edukiko dute partaideek. Egunean zehar berriz luntxa, opariak eta zozketak egongo direla aipatu dute antolatzaileek.

ERROMERIA LEGAZPIN!
Irailaren 14an, igandea, Lakiolan, 12:00etatik aurrera.
Koadrilen arteko apustu latza, bertsolarik, jokoak eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebekin!
Autobusa, bazkaria eta taberna.
Euskarazko Zingizango webgunearen alde.
Anima zaituz!
Euria eginez gero, Urbeltz pilotalekuan egingo da.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN
PROBIGURRAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

- **Tolosa.** Udazkeneko festa: 11:00etan entzierroa, 13:30ean Alde Zaharreko Merkataria onenaren saria banatuko dute udaletxe-ko batzar aretoan, ondoren, luncha, 14:30ean bazkari herrikoia Ezpeleta elkarteko tarbernetan.
- **Tolosa.** III. Erraldoien Bilkura: 12:30ean Konpartsen kalejira Alde Zaharreko kaleetan zehar, 14:30ean bazkaria Berdura Plazan, 17:30ean Konpartsen irteera Santa Maria plazatik, 18:00etan kontzertazioa Plaza Berrian eta 19:00etan Konpartsak Gorriti Plazan.
- **Tolosaldea.** Kilometroak 08ren aldeko bizikleta festa LH3. mailatik DBH1. mailarako ikasleentzat: 16:00etan abiatuko dira.
- **Zizurkil.** 11:00etan Gorritiren animaliak, ondoren buruhandiak, 14:30ean herri bazkaria, 17:00etan blusen pentatloia, mo-zorro gaua eta berbena Lain taldearekin, goizeko 6:00etan gosaria eta 7:00etan dultzainarien diana.

Deialdiak

- **Larraul.** Eskolaren inaugurazioa 12:00etan: txalaparta, hitzaldiak, omenaldia ikasle zaharrei, haritzaren landaketa, bertsoak, eskulturaren inaugurazioa, pintxo dastaketa eta bazkaria Ostatuan.

Azokak

- **Tolosa.** Luma-Gorri baserriko oilaskoen jai: oilasko dastaketa, oilasko pintxoak, oilasko hazkuntza prozesuaren erakusketa...
- **Villabona.** Irrintzi elkartearen Elkagaien XIII. Azoka Berezia. Bertan hainbat elikagai erosteko aukera izango da.

Musika

- **Tolosa.** Trikujai disko Festa Beotibar pilotalekuan, 22:30etik 05:00etara.
- **Tolosa.** Bonberenea Sutan: 18:00etan Mulambo eta Bonberenea txarangaren kalejira Tolosako kaleetan zehar; 20:00etan Willis Drummond, Inoren Ero Ni, Lisabö eta Deabruak Teilatuetan eta etxe barruan Bad Sound System.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Irudimenak ere badu tartea

TUC DE MULLERES

(PIRINIOAK) ●


Ion Gonzalezek argazki dibertigarri hau bidali du lehiaketara: «Blas-ek ere oporrak hartu ditu udara hontan eta Tuc de Mulleres-eko bidean geldialdi bat egin zuen argazki bat ateratzeko».



RIVIERA MAYA ●

Juanen Montoro tolosarrak argazki honekin parte hartu nahi izan du. «Bidalten dizuedan argazki honetan, Mexikoko leku zoragarri bat agertzen da, Riviera Mayan kokatuta dagoen Tulum izeneko. Antzinako Maya kulturaren hondakinen artean, hondartza polit hau, eta asko eskertzen da egiten duen beroarekin, bainutxo on bat hartzea, eta batez ere, Karibeko uretan bada, noski».

A Agurrak



Urte askoan!

Mireia Barriola Lizarza (Berastegi).
8 muxe goxo pitxurrina.
Aita, ama eta Eukeneren partetik.



Zorionak!

Zuri eta Jissa. Zorionak eta urte askotarako!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

